

MARINAREN DIETA



Marinak **sekulako** tripako mina du. Horregatik medikuarengana joan da. Medikuak Marinaren sabela **aztertu** du eta harrituta geratu da. Oso puztuta dauka sabela, oso gogorra. Medikuak galdetu dio:

- Zer jan duzu gaur, Marina?
- Gosarian hiru izozki eta bizkotxo zati bat. Hamaiketakoan txokolatezko gaileta pakete bat. Eta bazkarian gazta-tarta **osoa** eta marrubi-**irabiatua**. A, eta postrerako zazpi piruleta.

Medikua begiak zabal-zabalik ditu. **Hau da hau!** -esan du. Medikuak **azaldu** dio Marinari:

- **Denetarik** jan behar duzu: barazkiak, haragia, arraina, fruta, zerealak,...
- Eta gozokirik? Ezin dut gozokirik jan? Niri gozokiak asko gustatzen zaizkit.
- Bai, egunen gozoki bat jan ahal duzu.
- Ados -esan du Marinak. -Egunean gozoki bat baina igandeetan **bizpahiru**.

Marina etxera **itzuli** da. Ama sukaldean dago, janaria prestatzen ari da.

Marinak amari salda eskatu du. Orain ama dago harrituta.

Sekulako: oso handia **aztertu:** examinar **osoa:** entera **irabiatua:** batido

Hau da hau!: ¡lo que hay que ver! **Denetarik:** de todo **bizpahiru:** dos o tres **itzuli:** volver

EGIA ALA GEZURRA?

Marinak buruko min handia du gaur.

Marinak ez du ondo jaten; gozoki **gehiegi** jaten du. (**gehiegi:**demasiados)

Medikuak esan dio gozoki gehiago jan behar dituela.

Marinak medikuari kasu egin dio.

ERANTZUN:

Zer gosaldu duzu gaur?

Eta zer bazkaldu duzu?

Zenbat gozoki jan duzu gaur? Zein?